Berdintasun Unitatea

2024-2025

MEMORIA

Deusto
Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea
University of Deusto

Unidad de Igualdad
Berdintasun Unitatea
Gender Equality Unit

Ikasturte honetan zehar, Berdintasun Unitatean 6 pertsona aritu dira lanean:

- **Maria Silvestre**: Deustuko Unibertsitateko Soziologiako katedraduna, "Deusto Gizarte Balioak" ikertaldeko ikertzaile nagusia eta Berdintasun Unitateko zuzendaria.
- **Mirelur González:** Gizarte langilea, Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko Masterra, Giza Eskubideetako doktoregaia eta ikertzailea Berdintasun Unitatean.
- **Ainhoa Arostegui:** Gizarte langilea eta gizarte hezitzailea, Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko Masterra. Berdintasuneko teknikari lan egin du 2023ko martxotik 2024ko abendura.
- **Irune Pérez** (urtarrila-uztaila): Psikologoa, Osasun Psikologia Orokorreko + Neuropsikologia Klinikoko Masterreko ikaslea eta Berdintasun Unitateko lankidetza bekaduna.
- **Carla Arechaga** (urtarrila-otsaila): Filosofia, Politika eta Ekonomiako graduko praktiketako ikaslea.
- **Iñigo Elorduy** (martxoa-maiatza): Filosofia, Politika eta Ekonomiako graduko praktiketako ikaslea.

Aitorpenak:

Talde honez gain, Berdintasun Unitateak beste pertsona batzuen laguntza baliotsua izan du eta haiei esker hainbat jarduera egin eta bideratu ahal izan dira. Horien artean daude María López, Lorea Romero, Aurora Madariaga eta María Gil.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Lorena Fernándezi (Komunikazio Digitaleko zuzendaria), Ane Boresi (Prentsa bulegoa), Idatze Bilbaori (Komunikazio eta Marketin Saila) eta Luz Yamile Gutiérrezi (bulego garbitzailea).

Era berean, aparteko eskerrak eman nahi dizkiegu Benita Asas Manterola Sarietako epaimahaiko kideei, haien lana ezinbestekoa izan baita hautagaiak ebaluatzeko eta aitorpena emateko. Kideak hauek izan dira: Ainhoa Izaguirre, Borja Sanz, Cristina de la Cruz, Dolores Morondo, Jon Pizarro, Leire Gartzia, María Jesús Pando, María López, María Pilar Rodríguez eta Raquel Royo.

Txosten hau Irune Pérez Berdugok prestatu du, María Silvestrek eta Mirelur Gonzálezek lagunduta eta berrikusita.

Jarraian ageri dira Berdintasun Unitateak 2024-2025 ikasturtean burutu dituen jarduerak zehaztuta.

AURKIBIDEA

Edukia

1. BERDINTASUN UNITATEA EZAGUTARAZTEKO EKIMENAK 4
1.1. Bulego berria (2024) 4
1.2. Taldearen aurkezpena bulegoaren sarreran 4
1.3. Seinaletika (2024ko azaroa) 4
1.4. Hitzordua hartzeko sistema berria (2024ko azaroa) 4
1.5. Berdintasun Unitateko bi posta elektronikoko helbide (2024ko ekaina) 5
1.6. Telefono luzapen berria 5
1.7. Berdintasun Unitateko logo berria (2025eko urtarrila-otsaila) 5
1.8. Informazioa intranetean jaso eta agertzea (2025eko urtarrila) 5
1.9. Baliabide erabilgarrien erakusmahaia (2025eko martxoa) 5
1.10. Protokoloak eta baliabideak banatzea (2025eko maiatzaren 20a eta 21a) 5
1.11. Genero ikuspegia irakaskuntzan eta ikerketan txertatzeko gidak banatzea 6
2. BERDINTASUNAREN ALDEKO EKIMENAK UNIBERTSITATEAN 6
2.1. Hautaketa prozesua berraztertzea 6
2.2. Berdintasun Planaren jarraipena 6
2.3. 2023-2024ko urtekaria berrikustea 7
2.4. “Dónde están ellas?” (2025eko urtarrila) 7
2.5. Gida ezagutarazteko prestakuntza ikastaroa (2025eko martxoa) 7
3. A25eko KANPAINA 7
3.1. A25eko elkarretaratzeak (2024ko azaroak 25) 8
3.2. Online tribiala: *Zenbat dakizu desgaitasuna duten emakumeen aurkako indarkeriari buruz?* (2024ko azaroaren 25eko astea) 8
3.3. Ateak zabalik Bilbon (2024ko azaroak 26) 9
3.4. Bideo foruma (2024ko azaroak 26) 9
3.5. Ateak zabalik Donostian (2024ko azaroak 28) 9
3.6. Murala: “Zenbat dakizu desgaitasuna duten emakumeen aurkako indarkeriari buruz?” (2024ko azaroaren 25eko astea) 10
4. M8ko KANPAINA 10
4.1. Ateak zabalik Donostian (2025eko martxoak 3) 11

4.2. Aurrez aurre parte hartzeko jarduera: *Feminismoari buruzko mitoak eta egiak* (2025eko martxoak 4) 11
4.3. Online parte hartzeko jarduera: *Feminismoari buruzko mitoak eta egiak* (2025eko M8ko astea) 12
4.4. Ateak zabalik Bilbon (2025eko martxoak 5) 12
4.5. Benita Asas Manterola Sarien banaketa (2025eko martxoak 6) 13
4.6. Benita Asas Manterola Sarien deialdiaren hasiera (2025eko martxoa) 13
4.7. M8ko elkarretaratzeak (2025eko martxoak 7) 14
5. MIKROMATXISMOEN KANPAINA 15
5.1. Parte hartzeko jarduera: “Matxismoaren piramidea” (2025eko maiatzak 13) 15
5.2. Parte hartzeko jarduera: “Mikromatxismoak ala ez?” (2025eko maiatzak 15) 15
6. PROBINTZIA MAILAKO PROIEKTUAK ETA SAREAK 16
6.1. Herri Itunean parte hartzea 16
6.1.1. Euskal Unibertsitate Sistemako Berdintasun Unitateen Lantaldea eratzeko eta aurreratzeko bilerak Emakunderen Herri-Itunaren barruan 16
6.2. Euskaditik Mundura: Euskal 2030 Agendara kritikoki hurbiltzea (2025eko maiatzak 27) 17
7. ESTATUKO PROIEKTUAK/SAREAK 17
7.1. CRUEn (Espainiako Unibertsitateetako errektoreen konferentzia) parte hartzea 17
7.1.1. CRUEren bilera (2025eko maiatzak 19) 18
7.2. RIUGEUn (Unibertsitate Bikaintasunerako Genero Berdintasuneko Unitateen Sarea) parte hartzea 18
8. NAZIOARTEKO PROIEKTUAK/SAREAK 19
8.1. INSPIRE proiektuan parte hartzea 19
8.1.1. Hasierako bilera / Kick off meeting (2024ko urriak 3) 19
8.1.2. Knowledge Exchange Event (2025eko irailak 27) 19
8.2. GenderSAFE proiektuan parte hartzea 20
9. BILTZARRAK, HITZALDIAK ETA PRESTAKUNTZAK 21
9.1. Giza Eskubideetako prestakuntza (2024ko irailaren 16tik 19ra) 21
9.2. Aniztasunaren eta alborapen inkontzientearen inguruko sentiberatasun prestakuntza (2024ko urriak 21) 21
9.3. GJHei buruzko foroan parte hartzea (2024ko urriak 22 eta 23) 21
9.4. GenderSAFE prestakuntzak 21
9.5. Berdintasuneko egituren topaketa Tomar hirian (2025eko apirilak 5) 22
9.6. VOICESen konferentzia (2025eko uztailaren 9tik 11ra) 22
10. BERDINTASUN UNITATEAREN BESTE LANKIDETZA BATZUK 22
10.1. Mentoretza inklusiboari buruzko udako ikastaroa (2024ko uztailaren 8tik 11ra) 22

10.2. Autodefentsa Feministako tailerra (2024ko martxoak 11 eta 18)..... 23
10.3. Autodefentsa Feministako bigarren jardunaldiak (2025eko maiatzak 8) 23
10.4. Emakumeari eta Kirolari buruzko XIV. mintegia (2024ko abenduak 12)..... 24
11. ESKU HARTZEA / LAGUN EGITEA..... 24
12. LABURPEN KUANTITATIBOA..... 25

1. BERDINTASUN UNITATEA EZAGUTARAZTEKO EKIMENAK

*Atal honetan ageri diren ekintza guztiak **Berdintasun Planaren 1.1 helburuari dagozkio:** Deustuko Unibertsitatean berdintasun printzipioa sendotzea. Zehazki, **planaren 6. ekintzari** dagokio: Berdintasunerako Unitatea eta Berdintasunerako Batzorde Akademikoa eta haien eginkizunak ezagutaraztea.*

*Era berean, **Berdintasun Planaren 13.1 helburuari** loturik dago: Ikasleen artean genero ikuspegia sustatzea. Zehazki, **Planaren 64. ekintzari** dagokio: Indarkeria matxistako egoeretan, ikasleek orientazioa jasotzeko gune seguru bat bermatzea.*

1.1. Bulego berria (2024)

2024-2025 ikasturterako, Berdintasun Unitatea bulego berrian egon da, Entzungelaren ondoko klaustroan, liburu-dendaren eta Entzungelaren bitartean (Bilboko campusa).

1.2. Taldearen aurkezpena bulegoaren sarreran

Berdintasun Unitateko taldea nortzuek osatzen duten ezagutarazteko, kartel batzuk jarri dira bulegoaren sarreran, taldeko kideen aurkezpen labur bat dutela.

1.3. Seinaletika (2024ko azaroa)

Bulegoa eratuta, bi plaka urdin jarri ziren seinaletika adierazita: Unidad de Igualdad / Berdintasun Unitatea / Gender Equality Unit.

1.4. Hitzordua hartzeko sistema berria (2024ko azaroa)

Hitzordua hartzeko sistema berria prestatu zen ikasturtean. Unitateko bulegoaren sarreran dagoen QR kode bat eskaneatuta, nahi dutenak hitzordua hartzeko sistemara sartu daitezke eroso eta erraz.

1.5. Berdintasun Unitateko bi posta elektronikoko helbide (2024ko ekaina)

Ikasturtean, Berdintasun Unitaterako sortu diren bi posta elektronikoko helbideak erabiltzen hasi gara ekainean: igualdad@deusto.es (harremanetarako helbide elektronikoa) eta unidad.igualdad@deusto.es (barne erabilerarako).

1.6. Telefono luzapen berria

Ikasturte honetan, telefono luzapen berria esleitu zaio Berdintasun Unitateko bulegoari eta Mirelur Gonzálezi dagokio: 2024.

1.7. Berdintasun Unitateko logo berria (2025eko urtarrila-otsaila)

Unibertsitateko Komunikazio eta Marketin Sailaren laguntzari esker, Berdintasun Unitateak bere logoa du.

1.8. Informazioa intranetean jaso eta agertzea (2025eko urtarrila)

Intranetean Berdintasun Unitateari buruzko informazioa eta jarduera nagusiak eguneratu dira. Era berean, harremanetarako helbide elektronikoa, bulegoaren kokapena eta telefono luzapen berria ere jarri dira modu irisgarriagoan.

1.9. Baliabide erabilgarrien erakusmahaia (2025eko martxoa)

Baliabide erabilgarrien eta materialen erakusmahai bat jarri da bulegoaren sarreran. Bertan daude ikusgai jazarpen protokoloak, Benita Asas Manterola Sarien triptikoak, indarkeria matxistako kasuak artatzen dituzten beste zentro batzuen liburuxkak, orri-markatzaileak eta intsigniak.

Azpimarratu behar da ikasturte osoan zehar jazarpen protokoloari buruzko 44 liburuxka banatu zaizkiela unibertsitateko elkarteko kideei.

*Puntu hau **Berdintasun Planaren 12.1 helburuari** loturik dago: Genero ikuspegia irakaskuntzan eta ikerketan txertatzea. Zehazki **59. ekintzari** dagokio: Unibertsitateko elkarte osoarentzako sentsibilizazio jarduerak egitea; baita **Planeko 61. ekintzari** ere: Graduko eta masterreko ikasleei Gradu Amaierako Lanetan eta Master Amaierako Lanetan genero ikuspegia txertatzen eta aplikatzen erakustea eta horretarako pizgarriak ematea.*

1.10. Protokoloak eta baliabideak banatzea (2025eko maiatzaren 20a eta 21a)

A25eko eta M8ko asteetan egin zen bezala, maiatzean jazarpen protokoloaren triptikoak eta liburuxkak banatu ziren indarkeria matxistan espezializaturiko arreta zentroei buruz, Bilboko eta

Donostiako campusetako eraikinetan. Era berean, baliabide guztiak inguru publikoetan utzi ziren, informazioa jasotzea errazteko.

1.11. Genero ikuspegia irakaskuntzan eta ikerketan txertatzeko gidak banatzea

Ikasturtean zehar, *Genero ikuspegia irakaskuntzan eta ikerketan txertatzeko gidak* (Deustuko Unibertsitatea, 2021) banatu dira, bai gaztelaniaz eta bai euskaraz.

Gidak doan eskaintzen zaizkio unibertsitateko elkarteari Berdintasun Unitatean. Zatoz gure bulegora zeurea jaso nahi baduzu! Gainera, eskura daude formatu digitalean gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez.

Oraingoz, gidaren bila etorri direnen artean, bi ikasle talde daude (29 neska eta 13 mutil), 6 irakasle-ikertzaile emakume, 2 irakasle-ikertzaile gizon* eta lau ikertalde.

Berdintasun Unitatea ale gehiagorik gabe geratu zenez, beste 400 gida enkargatu ziren: 200 gaztelaniaz eta 200 euskaraz.

*Puntu hau **Berdintasun Planaren 12.1 helburuari** loturik dago: Genero ikuspegia irakaskuntzan eta ikerketan txertatzea. Zehazki, **planaren 61. ekintzari** dagokio: Graduko eta masterreko ikasleei Gradu Amaierako Lanetan eta Master Amaierako Lanetan genero ikuspegia txertatzen eta aplikatzen erakustea eta horretarako pizgarriak ematea.*

2. BERDINTASUNAREN ALDEKO EKIMENAK UNIBERTSITATEAN

2.1. Hautaketa prozesua berraztertzea

Ikasturtean zehar, Berdintasun Unitateak Deustuko Unibertsitateak kontratatzen dituen langileen hautaketa prozesua aztertu du genero ikuspegitik.

*Puntu hau **Berdintasun Planaren 2.1 helburuari loturik** dago: Sexuaren araberako diskriminaziorik gabeko hautaketa prozesuak bermatzea. Zehazki, **Planaren 11. ekintzari** dagokio: Hautaketa prozesua, lanpostu hutsen idazketa barne hartuta, eta prozesu horretan erabiltzen diren tresnak eta probak genero ikuspegitik berrikustea.*

2.2. Berdintasun Planaren jarraipena

Berdintasun Unitateak Berdintasun Planaren jarraipena egin du, Pertsonen Kudeaketako taldearekin batera hileroko bileren bidez ikasturte osoan zehar.

IV. Berdintasun Planaren zabalkundean ere lagundu du prestakuntza ikastaro batean, Unibertsitateko arduradunei 2025eko uztailaren 2an eskaini zitzaien “Genero alborapenak” izenekoan.

2.3. 2023-2024ko urtekaria berrikustea

2024-2025 ikasturtearen barruan, Deustuko Unibertsitateko 2023-2024 ikasturteko Urtekaria berraztertu da, dokumentu inklusiboagoa izan dadin.

2.4. “Dónde están ellas?” (2025eko urtarrila)

2018an, Europako Parlamentuak **“¿Dónde están ellas?”** ekimena jarri zuen martxan. Emakumeek esparru publikoan duten papera erakutsi nahi zuen, bereziki Europako gaietako eztabaida eta hitzaldien esparruan.

Horrela bada, urtero bezala, Berdintasun Unitateak dokumentu bat prestatzen du Unibertsitatean egin diren jarduera guztiekin, baita hizlari eta parte-hartzaile guztien zenbaketa egin ere, generoaren eta desgaitasunaren arabera banatuta. Horrela, proportzioak aztertu eta neurriak hartu ditzake parekotasunaren alde eta pixkanaka kopuruak hobetu, beharrezkoa izanez gero.

2.5. Gida ezagutarazteko prestakuntza ikastaroa (2025eko martxoa)

Ikasturtean zehar, Berdintasun Unitateak prestakuntza ikastaro bat eskaini du Genero ikuspegia irakaskuntzan eta ikerketan txertatzeko asmoz. Guztira 5 pertsonak parte hartu zuten eta 3k jaso zituzten egiaztagiriak.

*Puntu hau **12.1. helburuarekin** lerrokatuta dago: Genero ikuspegia irakaskuntzan eta ikerketan txertatzea. Zehazki **60. ekintzari** dagokio: Gida ezagutarazteko prestakuntza ikastaro bat eskaintzea.*

3. A25eko KANPAINA

Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna gogoratzeko, A25 kanpaina antolatu zen azaroaren 25etik 29ra eta zenbait jarduera prestatu ziren Donostiako eta Bilboko campusetan. Aurtengo kanpainan, desgaitasunak dituzten emakumeen kontrako indarkeria hartu zen ardatz, “Isildutako milaka historiarengatik, ahotsa altxatzen dugu” lema hartuta.

Atal honetako puntu guztiak ***Berdintasun Planaren 10.1 helburuari loturik*** *daude: Indarkeria matxistarik gabeko erakunde kultura sustatzea. Zehazki,* ***Planaren 48. ekintzari*** *dagozkio: Langileak sentsibilizatzea indarkeria matxisten inguruko kanpainen bidez.*

Era berean, ***Berdintasun Planaren 12.1 helburuari loturik*** *daude: Genero ikuspegia irakaskuntzan eta ikerketan txertatzea. Zehazki****, 59****.* ***ekintzari*** *dagozkio: Unibertsitateko elkarte osoarentzako sentsibilizazio jarduerak egitea.*

13.1. helburuarekin *ere lerrokatuta daude: Ikasleen artean genero ikuspegia sustatzea. Zehazki* ***66. ekintzarekin****: Ikasleengan (emakumeak eta gizonak) generoaren inguruko kontzientzia kritikoa sustatzea, kontzientziazio jarduerak eginez.*

3.1. A25eko elkarretaratzeak (2024ko azaroak 25)

Azaroaren 25ean bi elkarretaratze izan ziren: bata, Bilboko campusean eta, bestea, Donostiako campusean.

Bilboko campusean, bi ikaslek parte hartu zuten: haietako batek adimen desgaitasuna eta besteak ikusteko desgaitasuna zuten. Ekitaldia irisgarria izan zedin, zeinu hizkuntzako interprete bat kontratatu zen, entzuteko desgaitasuna dutenek jardueran erabat parte hartzeko.

Juan Jose Etxeberria errektorea eta María Silvestre Berdintasun Unitateko zuzendaria izan ziren buru. Hitzaldian, Juan José Etxeberria errektoreak nabarmendu zuen indarkeria matxista gizartearen arazo estrukturala dela, onartezina dela egoera hori ukatzea eta haren larritasuna minimizatzea. Ekitaldian, Sastrakako Emakumeak taldearen “Azaroak 25” kanta entzun ahal izan zen, emakumeen kontra egiten den genero indarkeria sinbolizatzen eta salatzen duena.

- **Ordutegia:** 10:50-11:10
- **Lekua:**
    - Bilboko campuseko Memoria Plaza
    - Donostiako campuseko Larramendi eraikinaren sarrera

3.2. Online tribiala: *Zenbat dakizu desgaitasuna duten emakumeen aurkako indarkeriari buruz?* (2024ko azaroaren 25eko astea)

Azaroaren 25eko astean zehar, online trivial bat egin zen izenburu hau zuena: *“¿Zenbat dakizu desgaitasuna duten emakumeen kontrako genero indarkeriari buruz?*”. Unibertsitateko ikasleen artean hausnarketa sustatzeko helburuz sortu zen.

Tribialean egunero (astelehenetik ostiralera) galderak egiten ziren eta partaideek erantzun zuzena hautatu behar zuten. Galdera bakoitza Deustuko Unibertsitateko Instagrameko kontutik (@udeusto) zabaltzen zen.

Trivialeko batez besteko partaidetza 300 pertsonakoa izan zen galdera bakoitzeko eta egunean 2.000 pertsonak ikusten zuten. Dinamikaren amaieran, Nobel Run bat zozketatu zen parte-hartzaileen artean.

3.3. Ateak zabalik Bilbon (2024ko azaroak 26)

Azaroaren 26an Ateaz zabaltzeko eguna antolatu zen Bilboko campuseko Berdintasun Unitatean. Helburua hauxe zen: Unitatearen eta haren funtzioen berri ematea.

Jardunaldian informazioko baliabideak eta materialak banatu ziren: jazarpen protokoloa, pegatinak, orri-markatzaileak eta txapak. Gainera, 62 pertsonak parte hartu zuten (48 emakumek eta 14 gizonek*).

- **Ordutegia**: 10:00 - 12:00
- **Lekua**: Entzungelaren ondoko klaustroa

*Puntu hau **Berdintasun Planaren 1.1 helburuari loturik** dago: Deustuko Unibertsitatean berdintasun printzipioa sendotzea. Zehazki, **Planaren 6. ekintzari** dagokio: Berdintasun Unitatea eta Berdintasunerako Batzorde Akademikoa eta haien eginkizunak ezagutaraztea.*

3.4. Bideo foruma (2024ko azaroak 26)

Bideo foruma azaroaren 26an izan zen. Partaideen hausnarketa bultzatzeko, laburmetraiak eskaini ziren desgaitasuna duten emakumeek indarkeria matxistaren aurrean bizi duten errealitatea erakusteko. Ondoren, Aisia eta Desgaitasunen Katedrako zuzendariak, Aurora Madariagak, eztabaidarako eta hausnarketarako tarte bat zabaldu zuen. Jardunaldian 53 pertsonak parte hartu zuten (40 emakumek eta 13 gizonek*), batez ere ikasleek.

- **Ordutegia**: 16:00 - 18:00
- **Lekua**: Bilboko campuseko Garate aretoa.

3.5. Ateak zabalik Donostian (2024ko azaroak 28)

Azaroaren 28an Ateak zabaltzeko eguna antolatu zen Donostiako campuseko Berdintasun Unitatean. Helburua hauxe zen: Unitatearen eta haren funtzioen berri ematea.

Jardunaldian informazioko baliabideak eta materialak banatu ziren: jazarpen protokoloa, pegatinak, orri-markatzaileak eta txapak. Jardunaldian 82 pertsonak parte hartu zuten (69 emakumek eta 13 gizonek*).

- **Ordutegia**: 10:00 - 12:00
- **Lekua**: Larramendi eraikinaren ataria

*Puntu hau **Berdintasun Planaren 1.1 helburuari loturik** dago: Deustuko Unibertsitatean berdintasun printzipioa sendotzea. Zehazki, **Planaren 6. ekintzari** dagokio: Berdintasun Unitatea eta Berdintasunerako Batzorde Akademikoa eta haien eginkizunak ezagutaraztea.*

3.6. Murala: "Zenbat dakizu desgaitasuna duten emakumeen aurkako indarkeriari buruz?" (2024ko azaroaren 25eko astea)

A25eko astean mural bat jarri zen Bilboko campusean, desgaitasunak dituzten emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuekin.

Helburua hau izan zuen: unibertsitateko elkartea kontzientziatzea desgaitasunak dituzten emakumeek jasaten duten genero indarkeriaren inguruan.

- **Ordutegia**: Azaroaren 25etik abenduaren 9ra
- **Lekua**: Bilboko campuseko labirintoaren ondoko sarrera

4. M8ko KANPAINA

M8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, martxoaren 3tik 7ra, hainbat jarduera antolatu zituen Berdintasun Unitateak. Aurten, kanpainak ardatz hau izan zuen: feminismoari buruzko mitoak eta egiak.

Atal honetako puntu guztiak Berdintasun Planaren **10.1 helburuari** loturik daude: Indarkeria matxistarik gabeko erakunde kultura sustatzea. Zehazki **48. ekintzari** dagozkio: Langileak sentsibilizatzea indarkeria matxisten inguruko kanpainen bidez. Eta Planeko 49. ekintzarekin lotuta zeuden: Mikromatxismoei buruzko sentsibilizazioa.
*Era berean, Berdintasun Planaren **12.1 helburuari** loturik daude: Genero ikuspegia irakaskuntzan eta ikerketan txertatzea. Zehazki **59. ekintzari** dagozkio: Unibertsitateko elkarte osoarentzako sentsibilizazio jarduerak egitea.*

13.1. helburuarekin *ere lerrokatuta daude: Ikasleen artean genero ikuspegia sustatzea. Zehazki* ***66. Ekintzarekin loturik*** *daude: Ikasleengan (emakumeak eta gizonak) generoaren inguruko kontzientzia kritikoa sustatzea, kontzientziazio jarduerak eginez.*

4.1. Ateak zabalik Donostian (2025eko martxoak 3)

Martxoaren 3an Ateak zabaltzeko eguna antolatu zen Donostiako campuseko Berdintasun Unitatean. Helburua hauxe zen: Unitatearen eta haren funtzioen berri ematea.

Jardunaldian informazioko baliabideak eta materialak banatu ziren: jazarpen protokoloa, pegatinak, orri-markatzaileak eta txapak, besteak beste. Nobel Run jokoa eta Genero ikuspegia irakaskuntzan eta ikerketan txertatzeko gidak jarri ziren erakusgai.

Jardunaldian 63 pertsonak parte hartu zuten (30 emakumek eta 33 gizonek*).

- **Ordutegia**: 10:30 - 12:30
- **Lekua**: Larramendi eraikinaren ataria

Puntu hau ***Berdintasun Planaren 1.1 helburuari loturik*** *dago: Deustuko Unibertsitatean berdintasun printzipioa sendotzea. Zehazki,* ***Planaren 6. ekintzari*** *dagokio: Berdintasun Unitatea eta Berdintasunerako Batzorde Akademikoa eta haien eginkizunak ezagutaraztea.*

Era berean, ***Berdintasun Planaren 12.1 helburuari loturik*** *dago: Genero ikuspegia irakaskuntzan eta ikerketan txertatzea. Zehazki,* ***Planaren 61. ekintzari*** *dagokio: Graduko eta masterreko ikasleei Gradu Amaierako Lanetan eta Master Amaierako Lanetan genero ikuspegia txertatzen eta aplikatzen erakustea eta horretarako pizgarriak ematea.*

4.2. Aurrez aurre parte hartzeko jarduera: *Feminismoari buruzko mitoak eta egiak* (2025eko martxoak 4)

Martxoaren 4an parte hartzeko jarduera bat egin zen feminismoari buruzko usteak aztertzeko, mitoak ala egiak ziren zehazteko. Ekintza horren bidez, unibertsitateko elkartea sentsibilizatu nahi izan zen haren inplikazio aktiboa bultzatuz.

Jardunaldi horretan hausnarketa kritikoa sustatu zen eta eztabaida aberasgarriak sortu ziren partaideen artean. Jardunaldian, orri-markatzaileak banatu ziren mitoak eta egiak jasotzen zituztenak, haien justifikazioa ebidentzia zientifikoan oinarrituta.

Jakintza beste nazionalitate batzuei ere hurbiltzeko, hainbat hizkuntzatan parte hartzeko aukera eman zen: espainieraz, ingelesez eta euskaraz. Orri-markatzaileak ere hiru hizkuntzatan egon ziren

eskuragarri. Guztira 3.555 inprimatu ziren (2.061 gaztelaniaz, 999 euskaraz eta 495 ingelesez) eta ikasturtea amaitu aurretik agortu ziren.

Jarduerak iraun zuen bi orduetan, 161 pertsonak parte hartu zuten (117 emakumek eta 44 gizonek*). Azpimarratu behar da panelak martxoaren 7ra arte geratu zirela ikusgai, beste pertsona batzuek beste une batean ikus zitzaten.

- **Ordutegia**: 10:30 - 12:30
- **Lekua**: Labirintoaren ondoko sarrera

4.3. Online parte hartzeko jarduera: *Feminismoari buruzko mitoak eta egiak* (2025eko M8ko astea)

Martxoaren 8ko astean, historia zehar izan diren feminismoari buruzko hainbat uste partekatu ziren Deustuko Unibertsitatearen Instagrameko kontuan (@udeusto). Helburua hau izan zen: Instagrameko elkarteari era aktiboan eragitea, baieztapen bakoitza mitoa ala egia zen adieraziz. Ondoren, egiaztatu edo gezurtatu egiten diren baieztapenak, ebidentzia zientifikoa oinarri hartuta.

Guztira, 250 boto eman ziren eta 1.879 pertsonak ikusi zuen Instagramen partekatutako argitalpen bakoitza. Astea amaitzean, Nobel Run bat zozketatu zen parte-hartzaileen artean.

4.4. Ateak zabalik Bilbon (2025eko martxoak 5)

Martxoaren 5ean Ateak zabaltzeko eguna antolatu zen Bilboko campuseko Berdintasun Unitatean. Helburua hauxe zen: Unitatearen eta haren funtzioen berri ematea.

Jardunaldian informazioko baliabideak eta materialak banatu ziren: jazarpen protokoloa, pegatinak eta orri-markatzaileak, besteak beste. Nobel Run jokoa eta *Genero ikuspegia irakaskuntzan eta ikerketan txertatzeko gida* jarri ziren erakusgai.

Jardunaldian 101 pertsonak parte hartu zuten (86 emakumek eta 15 gizonek*).

- **Ordutegia**: 10:30 - 12:30
- **Lekua**: Entzungelaren ondoko klaustroa

*Puntu hau **Berdintasun Planaren 1.1 helburuari loturik** dago: Deustuko Unibertsitatean berdintasun printzipioa sendotzea. Zehazki, **Planaren 6. ekintzari** dagokio: Berdintasun Unitatea eta Berdintasunerako Batzorde Akademikoa eta haien eginkizunak ezagutaraztea.*

4.5. Benita Asas Manterola Sarien banaketa (2025eko martxoak 6)

Martxoaren 6an, 2023-2024ko Benita Asas Manterola Sariak banatu ziren, GrALetako, MALetako ikerketa proiektuetan eta doktorego tesietan genero ikuspegia txertatzea sustatzeko. 2024-2025 ikasturteko sarien deialdia ere egin zen.

Ekitaldian **María José Villak *Benita Asas Manterola y los feminismos en España (1873-1968)*** liburua aurkeztu zuen ekitaldian, Espainian mugimendu feministak eratu eta sendotzeari buruzko ekarpen berriekin. Guztira, 41 pertsonak parte hartu zuten (26 emakumek eta 15 gizonek*).

Horrez gain, Berdintasun Unitatea eta baliabideak ezagutarazteko baliatu zen. Benita Asas Manterola Sarien eta Unibertsitateko jazarpen protokoloaren triptikoak banatu ziren, beste material batzuen artean. Saioa amaitzeko, iritziak partekatzeko eta kopau bat hartzeko tartea izan zen.

- **Ordutegia**: 12:30
- **Lekua**: Bilboko campuseko Garate aretoa.

*Puntu hau **Berdintasun Planaren 12.1 helburuari loturik** dago: Genero ikuspegia irakaskuntzan eta ikerketan txertatzea. Zehazki, **Planaren 61. ekintzari** dagokio: Graduko eta masterreko ikasleei Gradu Amaierako Lanetan eta Master Amaierako Lanetan genero ikuspegia txertatzen eta aplikatzen erakustea eta horretarako pizgarriak ematea.*

4.6. Benita Asas Manterola Sarien deialdiaren hasiera (2025eko martxoa)

2025eko martxoan, Benita Asas Manterola Sarien 2025-2026 ikasturteko deialdirako oinarriak eguneratu eta zabalkunderako baliabide berriak diseinatu ziren. Horrela bada, sariak martxoaren 6an banatu ondoren, hurrengo ikasturteko edizioaren berri zabaldu zen gizarte sareetan eta Unibertsitateko informazio pantailetan, triptikoak banatu ziren, kartelak jarri ziren eta koordinatzaileei eta dekanotzei horren berri eman zitzaien.

*Puntu hau **Berdintasun Planaren 12.1 helburuari loturik** dago: Genero ikuspegia irakaskuntzan eta ikerketan txertatzea. Zehazki, **Planaren 61. ekintzari** dagokio: Graduko eta masterreko ikasleei Gradu Amaierako Lanetan eta Master Amaierako Lanetan genero ikuspegia txertatzen eta aplikatzen erakustea eta horretarako pizgarriak ematea.*

4.7. M8ko elkarretaratzeak (2025eko martxoak 7)

Martxoaren 7an bi elkarretaratze izan ziren: bata, Bilboko campusean eta, bestea, Donostiako campusean. Bilboko campusean, hainbat pertsona elkartu ziren hitzaldiak irakurtzeko Emakumeen Nazioarteko Egunean:

- Aitziber Irigoras, Unibertsitateko Elkarteko eta 2030 Agendako errektoreordea.
- María Silvestre, Berdintasun Unitateko zuzendaria
- Irune Pérez, Osasun Psikologia + Neuropsikologia Klinikoko Master bikoitzeko ikaslea eta Berdintasun Unitateko lankidetza bekaduna
- Mirelur González, Berdintasun Unitateko ekitaldiaren koordinatzailea
- Amnistia Internazionaleko taldea, Nazioarteko Harremanetako eta Zuzenbideko gradu bikoitzeko 4. mailako ikasleak: Goizeder Arginzoniz, Hiart Bediaga, Naia Espinel, Alejandra Fernández de Lucio, Ane Goyarzu, Gorka Omaetxebarria eta Naia Mena.

Ekitaldia irisgarria izan zedin, zeinu hizkuntzako interprete bat kontratatu zen, entzuteko desgaitasuna dutenek jardueran guztiz parte hartzeko.

- **Ordutegia**: 10:50 - 11:10
- **Lekua**:
    - Bilboko campuseko Paraninfoaren ondoko klaustroa
    - Donostiako campuseko Larramendi eraikinaren sarrera

5. MIKROMATXISMOEN KANPAINA

Atal honetako puntu guztiak Berdintasun Planaren 10.1 helburuari loturik *daude: Indarkeria matxistarik gabeko erakunde kultura sustatzea.* ***Zehazki 48****.* ***ekintzari*** *dagozkio: Langileak sentsibilizatzea indarkeria matxisten inguruko kanpainen bidez. Eta* ***Planeko 49. ekintzarekin lotuta*** *zeuden: Mikromatxismoei buruzko sentsibilizazioa.*

Era berean, ***Berdintasun Planaren 12.1 helburuari loturik*** *daude: Genero ikuspegia irakaskuntzan eta ikerketan txertatzea. Zehazki* ***59****.* ***ekintzari*** *dagozkio: Unibertsitateko elkarte osoarentzako sentsibilizazio jarduerak egitea.*

13.1. helburuarekin *ere lerrokatuta daude: Ikasleen artean genero ikuspegia sustatzea. Zehazki* ***66. ekintzarekin loturik*** *daude: Ikasleengan (emakumeak eta gizonak) generoaren inguruko kontzientzia kritikoa sustatzea, kontzientziazio jarduerak eginez.*

5.1. Parte hartzeko jarduera: "Matxismoaren piramidea" (2025eko maiatzak 13)

Berdintasun Unitateak panel bat diseinatu zuen Matxismoaren piramidea irudikatzeko, indarkeria matxista 6 mailatan antolatzen duen eskema, formarik finenetatik –indarkeria estrukturala– ikusgarri eta muturrekoenetara, feminizidioa puntan dagoela. Goizean zehar, indarkeria matxistako ekintzei buruzko albisteak aurkeztu ziren eta maila eta azpi-motaren arabera sailkatzeko gonbita egin zitzaien ikasleei.

Jarduera unibertsitate inguruko gizonezkoei zuzenduta egon zen eta helburua jokabide matxista-mota desberdinen inguruan sentsibilizatzea izan zen; batzuetan, oharkabean pasatu daitezkeen indarkeria-motak nabarmendu nahi izan ziren bereziki. Guztira, 122 pertsonak parte hartu zuten (89 emakumek eta 33 gizonek*).

- **Ordutegia:** 10:30 - 12:30
- **Lekua:** Bilboko campuseko labirintoaren ondoko sarrera

5.2. Parte hartzeko jarduera: "Mikromatxismoak ala ez?" (2025eko maiatzak 15)

Maiatzaren 15ean, Berdintasun Unitateak panel bat jarri zuen ikasleen artean entzun litezkeen 12 baieztapen mikromatxistarekin.

Jarduera ikasleei zuzendua zegoen, bereziki gizonezko gazteei. Helburua hau izan zen: mezu matxista daramaten eta zabal dabiltzan zenbait komentarioren edukiaren inguruan kontzientziatzea. Era berean, hausnarketa eta eztabaida sustatu nahi zen partaideen artean. Horretarako, eguneroko

bizitzan hautematen dituzten beste mikromatxismo batzuetan pentsa dezaten animatu nahi zen. Guztira, 138 pertsonak parte hartu zuten (94 emakumek eta 44 gizonek*).

- **Ordutegia:** 10:30 - 12:30
- **Lekua:** Bilboko campuseko labirintoaren ondoko sarrera

6. PROBINTZIA MAILAKO PROIEKTUAK ETA SAREAK

6.1. Herri Itunean parte hartzea

Beijing-eko Adierazpenaren eta Plataformaren 25. urteurrena ospatzeko, Emakundek Herri ituna –Berdintasunerako Herri ituna eta emakumeen kontrako indarkeria gabeko bizitzak– sustatu du, NBEko Emakumeen ekimenari erantzunez. Helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko berdintasunaren egoera aztertzea, azken 25 urteetako aurrerapausoak eta etorkizuneko erronkak identifikatzea eta 2026an lortu beharreko konpromisoak ezartzea.

Deustuko Unibertsitateak, Berdintasun Unitatearen bidez, Itun horretan parte hartu du hasieratik bertatik. Itunaren barruan, eta Berdintasun Unitateak bultzatuta, Euskal Unibertsitate Sistemako Berdintasun Unitateen Lantaldea sortu da. Euskal Herriko Unibertsitateak, Mondragon Unibertsitateak eta Deustuko Unibertsitateak parte hartzen dute, Emakundek koordinatuta, unibertsitateetan berdintasun politiken garapenean elkarlanean aritzeko.

6.1.1. Euskal Unibertsitate Sistemako Berdintasun Unitateen Lantaldea eratzeko eta aurreratzeko bilerak Emakunderen Herri-Itunaren barruan

Hiru izan dira ekintza hau sustatu eta aurrerapausoak emateko. Hiru bilera egin dira ekintza hau sustatzeko eta aurrerapausoak emateko. 2024ko urriaren 30ean izan zen lehenengo bilera Deustuko Unibertsitatean, Berdintasun Unitateen Lantaldea eratzeko, Emakunde eta euskal unibertsitate sistemako hiru unibertsitateak bertan zirela: EHU. Mondragon eta Deusto.

Apirilaren 10ean izan zen taldearen bigarren bilera. Kataluniako (Inma Pastor) eta Galiziako (Eva Aguado) adituek hartu zuten parte, hartara bi autonomia erkidegoetako koordinazioko esperientziak ezagutzeko. Azkenik, 2025eko maiatzaren 16an, Materialen Fisika Zentroan izan zen bilera. Emakundek bi lantalde deitu zituen bilera horretara: Berdintasun Unitateena eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzakoa. Bilera horretan izan ziren, halaber, Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko Unibertsitate Komunitatea Artatzeko eta Zaintzeko Zuzendaritzako ordezkariak. Bilera horretan erabaki zen unibertsitateek eta ikerketa zentroek Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzarekin partekatuko zituztela berdintasun arloko jardunbide egokiak, baita aurrera begirako erronkak ere.

6.2. Euskaditik Mundura: Euskal 2030 Agendara kritikoki hurbiltzea (2025eko maiatzak 27)

Euskaditik Mundura E-lankidetzak finantzatu eta Deustuko Unibertsitateak Alboan Fundazioarekin batera garatzen duen proiektu bat da. Asmoa da hausnarketa kritikoa sustatzea eta aurrera begirako proposamenak sortzea ikuspegi globala eta giza eskubideak gogoan harturik, oinarrian 2030 Agenda duela. Horretarako, topaguneak eta taldeko hausnarketak antolatzen dira Afrika eta Latinoamerikako ikastetxe eta erakundeekin, 2030 Agendarako ekarpenak eta gomendioak biltzeko.

Aurtengo ikasturtean, Berdintasun Unitateak II. Euskaditik Mundura jardunaldian parte hartu du, proiektuko lantalde, gizarte zibileko erakunde, erabaki politikoen arduradun eta Administrazio Publikoetako teknikariekin batera. Jardunaldian, taldeek emaitzak aurkeztu zituzten. Ondoren, mahai-inguru bat izan zen: 2030 Agendaren lokalizazioa ikuspegi globaletik. Taldeen arteko lanaren ondoren, sintesia aurkeztu eta amaiera eman zitzaion jardunaldiari.

7. ESTATUKO PROIEKTUAK/SAREAK

7.1. CRUEn (Espainiako Unibertsitateetako errektoreen konferentzia) parte hartzea

Ikasturtean zehar, Berdintasun Unitatea CRUEren (Espainiako Unibertsitateetako errektoreen konferentzia) parte izan da.

CRUE irabazi asmorik gabeko elkartea da, 1994an sortua eta gaur egun Espainiako 77 unibertsitate publiko eta pribatuk osatua. Elkarteak unibertsitate kideen eta administrazio publikoen arteko lankidetza sustatzen du eta atzerriko unibertsitate eta gizarte eragileekiko harremanak bultzatzen ditu. Beste helburu hauek ere baditu:

- Erreferente izatea jakintzan eta jakintza horren transmisioan kalitatea sustatzea
- Ikerketaren, goi hezkuntzaren eta berrikuntzaren kalitatea bultzatzea
- Etengabeko prestakuntza sustatzea
- Zientzia eta kultura zabalkundean eragitea, gizarte-mailako aurrerakuntza izan dadin.

Berdintasun Unitatea CRUEren barruko bi lantaldetan dago. Alde batetik, Mirelur Genero Politiken lantaldeko kidea da eta, horren barruan, Jazarpen Protokoloetan diharduen taldean ari da. Maríak, bere aldetik, Ikerketako taldean hartzen du parte eta taldearen esku jarri du Genero ikuspegia irakaskuntzan eta ikerketan txertatzeko gidaren laburpen operatibo bat, laneko dokumentu gisa eta CRUEko Zuzendaritza Batzordeari gomendioak iradokitzeko lagungarri izan dakion.

7.1.1. CRUEren bilera (2025eko maiatzak 19)

María joan zen CRUEk Cadizen 2025eko maiatzaren 19an eta 20an antolatu zuen bilera nagusira. Bilera hartan izan ziren, gainera, Espainiako Gobernuko Estatuko Berdintasun Idazkaria eta Emakumeen Institutuko zuzendaria. Zenbait erregu, gomendio eta eskaera helaraztea adostu zen, bi erakundeen artean lankidetza hitzarmenen bat sinatzeko. Prestakuntza saioek unibertsitate mailako sexu jazarpen eta sexuagatiko jazarpen protokoloen hobekuntza izan zuten ardatz eta lantaldeak proposamenetan aurrerapausoak emateko elkartu ziren.

7.2. RIUGEUn (Unibertsitate Bikaintasunerako Genero Berdintasuneko Unitateen Sarea) parte hartzea

RIUGEUk (Unibertsitate Bikaintasunerako Genero Berdintasuneko Unitateen Sarea) hainbat espainiar unibertsitatetako Berdintasun Unitateak elkartzen ditu. 2009an sortu zenean, 25 unibertsitate bildu ziren sarera. Gaur egun, 54 unibertsitate daude sarearen barruan, haien artean, Deustuko Unibertsitatea.

RUIGEU urtero biltzen da eta, beste gai batzuen artean, aldian-aldian sareko kide diren unibertsitateetako genero berdintasunaren egoerari buruzko analisiak egiten ditu. Jardunbide egokiei ere eskaintzen diete tartea, Berdintasun Unitateek beren zereginen barruan abian jartzen dituzten ekimenak partekatzeko.

Zehazki, Mirelur **Jazarpen Protokoloen** lantaldeko kidea da; María, berriz, **Genero Ikuspegiaren Ikerketaz** arduratzen den taldekoa da.

2025eko ekainaren 5ean eta 6an izan ziren RUIGEU jardunaldiak, aurtengoan Badajozen antolatuta. María eta Mirelur online izan ziren jardunaldiotan. RUIGEUren batzarra ekainaren 6an izan zen.

Ekitaldi horretan hautatu zen RUIGEUko presidentea eta Mondragon Unibertsitateak sarean parte hartzea onartu zen.

8. NAZIOARTEKO PROIEKTUAK/SAREAK

8.1. INSPIRE proiektuan parte hartzea

INSPIRE Europako Bikaintasun Zentroa da genero berdintasun inklusiboko ikerketan eta berrikuntzan. Haren misioa jakintza aurreratua, politika berritzaileak eta jardunbide egokiak biltzea da adituen, akademiaren eta profesionalen arteko elkarlana errazteko, baliabideen trukea sustatuz eta tresna berriak elkarrekin sortuz. INSPIRE proiektua 2022an sortu zen eta 2026an amaituko da. 12 praktika komunitate ditu.

Deustuko Unibertsitateko Berdintasun Unitateak “Intersectionality for Change” (“Intersekzionalitatea Aldaketarako”) praktika komunitatea koordinatzen du, ikuspegi intersekzionala berdintasun planetan, ikerketan eta irakaskuntzan txertatzean aurrerapausoak emateko. Guztira, 20 pertsona dira praktika komunitate horren parte, 12 unibertsitatetan banatuta.

Horrez gain, komunitate praktika 4 lantaldetan dago banatuta: (1) esparru kontzeptualak, (2) inkorporazio praktikoa, (3) monitorizatzea eta ebaluazioa, (4) ikerketa eta irakaskuntza. Zehazki, Berdintasun Unitatea azken taldean ari da lanean.

8.1.1. Hasierako bilera / Kick off meeting (2024ko urriak 3)

INSPIREren barruan, **Intersekzionalitatea Aldaketarako** komunitate praktikako hasierako bilera Deustuko Unibertsitatean izan zen. Berdintasun Unitatea ekitaldia kudeatzeaz arduratu zen, baita beste unibertsitate batzuetatik etorritakoen egonaldia bideratzeaz ere.

Egunean zehar, **Intersekzionalitatea unibertsitateetan** gaiaren inguru ponentzia bat eskaini zuen Bruna Pereirak eta taldeko saioak egin ziren jakintzak eta hausnarketak partekatzeko. Praktika komunitateen hileroko bilera ere egin zen. Jardunaldiaren amaieran tour gidatu feminista egin zen Bilbon zehar. Guztira 15 pertsonak parte hartu zuten.

8.1.2. Knowledge Exchange Event (2025eko irailak 27)

Intersekzionalitatea Aldaketarako komunitate praktikarekin lotuta, irailean bilera bat izan zen Intersekzionalitateari buruzko jakintzak trukatzeko: **Inclusive Gender Equality in Research & Innovation: Doing Intersectionality – from Practice to Policy**.

Jardunaldian zehar, hausnarketa-saio bat egin zen intersekzionalitatearen eta horretatik eratorritako ikaskuntzen inguruan. Era berean, intersekzionalitatearen papera aztertu zen aldaketari eusteko, partaidetza zabaltzeko eta berrikuntza sustatzeko. Azkenik, taldea zenbait langelatan banatu eta solasaldi interesgarria sortu zen partaideen artean, garatutako ideiak partekatzeko.

Azpimarratu behar da, ekitaldiaren ondoren, aztertutako informazioa jaso zela eta laneko dokumentu bat garatu zela eta argitaratu egingo da, Mirelur egilekide delarik.

Dokumentuak aztertzen du nola ulertu eta aplikatu intersekzionalitatea genero berdintasuneko praktika eta politiketan mendebaldekoak ez diren gizarteetan: Erdialdeko, Ekialdeko eta Hego-ekialdeko Europan, baita Latinoamerikan ere. Gainera, agerian uzten du arrakala dagoela teoria eta praktikaren artean, Genero Berdintasuneko Planetan intersekzionalitatea eskas inplementatu baita. Intersekzionalitatearen aplikazio praktikoa oztopatzen duten faktoreak aztertu dira –politika-erresistentzia edo tokia ezagutzearekiko konpromiso falta– eta jardunbide egokiak planteatzen dira inguru akademiko eta ikerketakoan ezartzeko –datuen bilketa inklusiboa, elkarte partaidetza edo gizarte-egoera ahulean daudenei laguntzea.

8.2. GenderSAFE proiektuan parte hartzea

GenderSAFE proiektua UniSAFE proiektuaren jarraipen gisa sortu zen. Azken horrek erakutsi zuen generoan oinarritutako indarkeria bazela eta ondorioak zituela ikerketa eta irakaskuntzan zihartuten erakundeetan. Hortaz, GenderSAFEren helburua erakunde horiei laguntzea da ingurune seguru, errespetuzko eta inklusiboak sortzen laguntzea, generoan oinarritutako balizko indarkeria ezabatzera bideratutako politikak ezarririk.

GenderSAFEk lankidetzako 5 zirkulu biltzen ditu: (1) Generoan oinarritutako indarkeriaren lege alderdiak, (2) Botere harreman intersekzionalak eta generoan oinarritutako indarkeria, (3) Erdialdeko eta Ekialdeko Europaren ikuspegia generoan oinarritutako indarkerian oinarritua, (4) Ikasleak, (5) Agintari nazionalak. Zehazki Berdintasun Unitatea bigarren zirkuluko partaide da.

2024ko urrian, Mirelur GenderSAFE abian jartzeko bileran izan zen Erroman. Proiektuaren oinarrietan hasi ziren lanean, helburuak ezarri ziren eta rolak eta zereginak esleitu zitzaizkion praktikako zirkulu bakoitzari.

9. BILTZARRAK, HITZALDIAK ETA PRESTAKUNTZAK

9.1. Giza Eskubideetako prestakuntza (2024ko irailaren 16tik 19ra)

2024-2025 ikasturtearen hasieran, Mirelurrek **Human Rights Internship Training Programme** delakoan parte hartu zuen gazteentzat, UN ETXEAk bultzatuta, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Programa Genevan izan zen, non partaideek NBEren Giza Eskubideen Kontseilua ezagutu baitzuten, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordera ere joan ziren, Wilson Jauregian eta Mikel Mancisidorrekin elkartu ziren, Batzordeko kide eta Deustuko Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbideko irakaslearekin.

9.2. Aniztasunaren eta alborapen inkontzientearen inguruko sentiberatasun prestakuntza (2024ko urriak 21)

Berdintasun Unitateak Aniztasunaren eta alborapen kognitiboen inguruko sentiberatasunari buruzko online prestakuntzan parte hartu zuen (adibidez, hautaketa prozesuetan). Jardunaldia UNICek antolatu zuen, Europako hainbat herrialdetako hamar hiri postindustrialetako hamar unibertsitatek osatutako itunak.

9.3. GJHei buruzko foroan parte hartzea (2024ko urriak 22 eta 23)

2024ko urrian, Garapen Jasangarrirako Helburuei buruzko (GJH) Foroa izan zen, Deustuko Unibertsitateak eta Nazio Batuen 2030 Tokiko Koalizioaren Idazkaritzak antolatuta.

Ekitaldiak erakundeetako, administrazioetako eta herritar elkarte eta gobernuz kanpoko erakundeetako kideak bildu zituen, baita, erakunde akademikoak ere. Zenbait ponentzia eta mahai-ingururen bidez, hainbat gai jorratu ziren: kalitatezko hezkuntza, desberdinkeriak murriztea, adimen artifiziala eta klimaren aldeko ekintza. Proiektuei buruzko mahai-inguru bat ere izan zen. Maríak Berdintasun Unitateak burututako genero ikuspegidun hainbat jarduera eta ikerketa aurkeztu zituen.

9.4. GenderSAFE prestakuntzak

GenderSAFE proiektuaren barruan, “Train the Trainers” prestakuntza egin genuen, generoan oinarritutako indarkerian sakontzeko irakaskuntzan eta ikerketan, jardunbide egokiak sustatuz fenomeno horren kontra jarduteko.

Komunikazio hauetan ere izan ginen:

- Sexual harassment and gender-based violence in academia
- Pitfalls and precautions for producing victim-survivor-centred surveys

- Exploring non-disclosure agreements from a victim-survivor-centered perspective
- Developing anti-retaliation policies

9.5. Berdintasuneko egituren topaketa Tomar hirian (2025eko apirilak 5)

Mirelur Goi-mailako hezkuntzako genero berdintasuneko egituren Estatuko I. topaketara gonbidatu zuten, campus jasangarrien sarean. Tomarren izan zen (Portugal). Haren ponentzia Aldakerako intersekzionalitatea izan zuen gai, Deustuko Unibertsitatearen eta INSPIREren esperientziatik.

9.6. VOICESen konferentzia (2025eko uztailaren 9tik 11ra)

VOICES proiektuaren barruan, Mirelur **Gender Voices Final Conference** delakora joan zen, Parisera.

"**Institutional Challenges for Addressing GBV and Precarity among Early Career Researchers**" izeneko ponentziak erakunde-mailako oztopoetan jartzen du fokua ikuspegi intersekzionaletik eta intersekzionalitatea berdintasun planetan, ikerketan eta irakaskuntzan txertatzeko zailtasunak identifikatzen ditu. Zehazki, emakumeei karrera akademikoaren hastapenetan eragiten dieten berariazko faktoreak azpimarratzen ditu: enpleguko kontratu ezegonkorrak, lanbidean hazteko aukerak mugatzea edo egoera zaurgarriagoak genero indarkeria, jazarpen eta diskriminazio kasuetan. Genero igurikimen eta zainketa roletatik sortutako presio erantsia ere azpimarratzen du.

Azkenik, aurkezpenak intersekzionalitatearekiko erakunde-mailako konpromisorako deia egiten du, funtsezkoa baita inguru akademiko inklusiboak sortzeko, eta jardunbide egokiak deskribatzen ditu hori lortzeko.

Nabarmendu behar da aurkezpena ikuspegi eta ekimen desberdinak oinarri hartuta egin dela, batez ere, Berdintasun Unitatea partaide den INSPIRE "Intersectional for Change" proiektuaren praktika komunitatea.

10. BERDINTASUN UNITATEAREN BESTE LANKIDETZA BATZUK

10.1. Mentoretza inklusiboari buruzko udako ikastaroa (2024ko uztailaren 8tik 11ra)

VOICES proiektuaren barruan, Berdintasun Unitateak "**Equality: Unlocking knowledge, experience, and good practice in inclusive mentoring**" Udako Ikastaroa antolatu zuen, jardunbide egokiak sustatzeko, intersekzionalitatea eta inklusioa azpimarraturik.

Ekitaldian 48 emakume gazte ikertzaile, berdintasun, aniztasun eta inklusioko arduradun, administrari eta aktibista feminista bildu ziren. Prestakuntza saio, tailer eta eztabaida saioetan parte hartu zuten mentoretzaren inguruan testuinguru akademiko eta zientifikoetan. Horrekin batera, Bilbo hiria ezagutzeko tour gidatu feminista bat ere izan zen.

10.2. Autodefentsa Feministako tailerra (2024ko martxoak 11 eta 18)

M8aren barruan, Berdintasun Unitateak laguntza teknikoa eta logistikoa eman zion Autodefentsa Feministako bi eguneko tailerrari. Antolatzaileak Raquel Royo eta Itziar Gandarias izan ziren, DeustoCampusen bidez eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin.

Tailerra Maitena Monroyk eskaini zuen, diziplina horretan aitzindari eta Euskadiko erreferente denak eta liburu honen idazleak: “Autodefensa feminista: Más allá de aprender a decir no”. Jardunaldietan, erasoak identifikatzen ikasi zuten, baita indarkeriaren jatorria eta eraikuntza aztertzen ere alderdi eta ondorio guztietan. Eguneroko bizitzan erasoei erantzuteko eta egoera horiek ebazteko mekanismoak eta jarduerak ere jorratu ziren. Guztira, 21 emakumek hartu zuten parte tailerrean.

- **Ordutegia:** 15:15 - 19:15
- **Lekua:** Xabier Kirolguneko tatamia, Bilboko campusean

*Puntu hau **Berdintasun Planaren 10.1 helburuari loturik** dago: Indarkeria matxistarik gabeko erakunde kultura sustatzea. Zehazki, **Planaren 48. ekintzari** dagokio: Langileak sentsibilizatzea indarkeria matxisten inguruko kanpainen bidez.*

10.3. Autodefentsa Feministako bigarren jardunaldiak (2025eko maiatzak 8)

Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin, Berdintasun Unitateak Autodefentsa feministako Unibertsitateko II. Jardunaldiak antolatu zituzten Raquel Royok eta Itziar Gandariasek. Parte-hartzaileek beren bizipenak partekatu zituzten autodefentsa feministarekin eta, ondoren, Karin Konkle Autodefentsa Feministako hizlari eta irakasleak *Autodefensa feminista para todo el mundo* liburua aurkeztu zuen. Azkenik, mahai-inguru bat egin zen. Hainbat taldek (AMUGE, Hernaniko Mugimendu Feminista eta Matagalpa-Nikaraguako Emakumeen Taldea) beren esperientzien inguruan hitz egin zuten. Guztira, jardunaldian 165 pertsonak hartu zuten parte (139 emakumek eta 26 gizonek)*.

Berdintasunean sozializatzeko eta Berdintasun Unitatearen jarduera ezagutarazteko, jardunaldiaren prestakuntzan lagundu zutenek oparitan jaso zituzten Unitateko materialak eta hizlariek Nobel Run jokoa jaso zuten parte hartzea eskertzeko.

- **Ordutegia:** 09:00 - 13:30
- **Lekua:** Bilboko campuseko Entzungela

*Puntu hau **Berdintasun Planaren 10.1 helburuari loturik** dago: Indarkeria matxistarik gabeko erakunde kultura sustatzea. Zehazki, **Planaren 48. ekintzari** dagokio: Langileak sentsibilizatzea indarkeria matxisten inguruko kanpainen bidez.*

10.4. Emakumeari eta Kirolari buruzko XIV. mintegia (2024ko abenduak 12)

Emakumeari eta Kirolari buruzko XIV. mintegia Aspasiak antolatu zuen, Deustuko Unibertsitateko Hezkuntza eta Kirol Fakultatearekin eta Berdintasun Unitatearekin lankidetzan, eta emakume kirolariek kirol profesionalean sartzeko dituzten aukerez eta zailtasunez izaten da batez ere.

Jardunaldian, ponentzia bat aurkeztu zen: “Retos desde París 2024. La nueva ley del deporte y las mujeres en el ámbito deportivo”. Arantxa Uriak eskaini zuen, Kirol profesionalean diharduten emakumeen elkarteko presidenteordeak. Bi mahai-inguru ere izan ziren. (1) “Emakume kirolariek kirol profesionalean sartzeko dituzten aukerak eta zailtasunak. Zer dakarkio emakume kirolari bati Olinpiar Jokoetan parte hartzeak?” eta (2) “Emakumea eta desgaitasuna duen kirolaria izatea. Indarguneak eta ahuleziak, erronkak eta lorpenak Paris 2024ko Paralinpiar Jokoetan”. Bi mahai-inguruetan zenbait emakume kirolarik parte hartu zuten eta beren esperientziaren berri eman zuten.

Ondoren, lantalde batzuk antolatu ziren gai hauek jorratzeko: emakumeek kirol profesionaletara jotzeko dituzten zailtasunak edo nola bateratu eliteko kirola eta ikasketak eta aisia. Saioaren amaieran, berdintasunarekin konprometituta dauden pertsona eta erakundeei sariak eman zitzaizkien.

- **Ordutegia:** 09:30 - 14:00
- **Lekua:** Bilboko campuseko Garate aretoa.

11. ESKU HARTZEA / LAGUN EGITEA

Ikasturte honetan zehar, Berdintasun Unitateak jazarpen edo indarkeria matxista zela eta arreta eskatu duten 4 emakumeren kasuetan esku hartu eta lagun egin du. Azpimarratu behar da, Berdintasun Unitateak ez duela jazarpen protokolorik aktibatu.

*Puntu hau **Berdintasun Planaren 13.1 helburuari** loturik dago: Ikasleen artean genero ikuspegia sustatzea. Zehazki, **Planaren 64. ekintzari** dagokio: Indarkeria matxistako egoeretan, ikasleek orientazioa jasotzeko gune seguru bat bermatzea.*

12. LABURPEN KUANTITATIBOA

Azkenik, azaldutako datuak ageri dira jarraian laburbildurik:

- **51** jarduera burutu ditu Berdintasun Unitateak 2024-2025 ikasturtean zehar.
- Jarduera horietan **1.656 parte-hartzaile baino gehiago** bildu dira. **
- 902 parte-hartzaileren generoa jaso zen: **675 (% 75) emakumezkoak** izan ziren eta **227 (% 25) gizonezkoak.** *
- **4** pertsona (% 100 emakumeak) artatu ziren indarkeria matxista dela eta 2024-2025 ikasturtean.

* Desagregazioa gutxi gorabeherakoa da eta partziala izan daiteke, partaideei ez baitzitzaien generoaz galdetu eta ezin izan zen pertsona ez-bitarren kopurua kontabilizatu.

** Jarduera askotan ezin izan zen pertsona kopurua erregistratu eta ez dira laburpenean kontabilizatu.

Berdintasun Unitatean pozik jasoko ditugu irakurleen iradokizunak eta zalantzak argitu, halakorik izanez gero. Harremanetan jartzeko, bidali mezua helbide honetara: igualdad@deusto.es.